



“PIZTU”

ENERGIA BERRIZTAGARRIAK GARATZEA ETA EZARTZEA ESKUALDE MAILAN

Gaur egun bizi dugun testuinguru energetiko eta sozioekonomikoan: energia berriztagarrien gorakada, klima-aldaketari buruzko gizarte-kontzientzia handiagoa, erregai fosilen prezioa eta horiek ingurumenean duten eragina... aukera handia sortzen da tokiko sustapenerako eta garapenerako, baita Erroibarrak, Auritzek eta Orreagak osatzen duten Nafarroako eskualdean ere.

Toki-garapenari irekitako aukera-leiho honek, betiere ikuspuntu jasangarri batetik, autokontsumo energetikoan eta tokiko energia-baliabideen (energia berriztagarriak) aprobetxamenduan du oinarria.

Energia berriztagarriak teknologia berriak ez badira ere, haien garapen teknologikoak aurrerapen handia izan du azken urteotan, erregai fosilen alternatiba bideragarri bihurtuz.

Arau-esparru berriarekin, 100 kW-tik beherako autokontsumoko instalazioak alternatiba bideragarri bihurtzen dira ekonomikoki, teknologikoki eta administratiboki ohiko energia-hornikuntzako iturrien aldean.

Auritz, Orreaga eta Erroibarko Udalek, dauden testuinguru energetiko, ekonomiko eta sozialaz jabetuta, eskualde mailan energia berriztagarriak garatzeko eta ezartzeko proiektu bat bultzatzen dute, energia eraginkortasuna eta aurrezpena sustatzeko eta energia berriztagarriak sustatzeko estrategia gisa, landa-ingurunean energia-eredu berri bat ezartzen aurrera egiteko, bertako energia-baliabide berriztagarriak hobeki aprobetxatuta.

Horretarako, energia berdea sortzeko instalazio posibleak jartzeko kokaleku batzuk ebaluatu dira, modu banatuan lan eginez, eremu horretan energia-gaitasun handiagoa eta energia berdearen helburuak lortzeko eta autokontsumoaren % 100 helburuetarantz aurrera egin ahal izateko.

Lankidetza-proiektu honen aplikazio-lurraldean sartzen dira Pirinioetako Eskualdeko 3 udalerrri hauek: Erroibar, Auritz eta Orreaga, eta Erroibarko kontzejuak eta biztanleak dauden lekuak: Mezkiritz, Lintzoain, Esnotz, Erro, Orondritz, Zilbeti, Aurizberri, Bizkarreta-Gerendian eta Sorogain.

Nafarroako gobernuak laguntzen du, GU Pirinioarekin elkarlanean:

